

ERROMERIA: HAURREN ETA HAURRAK EZ DIRENEN KONTUA

Herri eta auzoetako festak hurbiltzen, Soinueneak antolatutako haurrentzako tailerretan dantzak lantzea onetsi genuen. Dantzak jendea erakartzen jarraitzen du.

Azken urteetan gertuen dauzkagun festetan, hau da, Oiartzun eta bere auzoetakoetan dantza zaletasunak behera egin ote zuen susmoa hartuak ginen. Beti ere herri dantzez ari gara, jakina.

Oso litekeena da susmo hori okerra izatea. Izan ere aurtengo dantzaldietan jendea parte hartzeko gogotsu ikusi dugu. Hala ageri da bildu ditugun argazkietan.

Batetik, Oiartzungo Ergoien auzoko festak gogoratu behar ditugu. Bertan, ekainaren 15ean izan ziren ekitaldi ugarien artean herri dantzak bere lekua izan zuten: goizean dantzari txikien herri dantzen erakustaldiarekin eta arratsaldean erromeriarekin. Goizean dantzan aritu ziren haurrak ikasturtean zehar egindako lana erakutsi zuten. Arratsaldekoa beste kontu bat izan zen. Musikariak eta joko zuten musika prestatuta bazeuden ere, dantzari ezin dugu gauza bera esan, hau da, ez zegoen erromerian parte zeinek hartuko zuen jakiterik.

Horrela, Soinuenearen ondoan dagoen Auzokalte elkartearen aurrean arratsalde hartan jende ugari zebilen haurrentzako antolatutako ekitaldietan parte hartzen. Erromerian parte hartuko al zuten? Ba, ordua iritsi zenean eta Juan Mari Beltran, Ander Barrenetxea eta Ane Errege Beldak osatutako hirukotea musika jotzen hasi zenean erantzun bikaina jaso zuten han bildutakoen aldetik. Haur eta gurasoak azkar hurbildu ziren zer zegoen ikustera. Lehenengo haurrak sartu ziren Jon Iraola dantza-maisuak azaldutako dantza-jolasetan parte hartzera, baina dantza eta jolasa haurren ingurura mugatu gabe laster sartu ziren gurasoak eta kondizio ezberdinetakoa helduak ere dantzatzera. Arrakastatsua izan zen haur eta helduak elkartu zituen erromeria hura. Egun argiz izanagatik lotsaren kateak ez ziren ikusten.



Erromeria Oiartzungo 2013ko Xanistebanetan Ortzadar taldearekin. Doneztebe enparantzaren adin guztietakoak elkarrekin dantzan. SNN

Zenbaitek salbuespena ote den pentsatuko du, eta ez du horretarako arrazoirik falta.

Festek aurrera jarraitu dute. Ergoien goek Arraguakoak jarraitu zituzten bezala, gero etorri ziren Altzibar eta Iturriozkoak, eta segidan Oiartzungo Xanistebanak.

Orri honetan sartu dugun argazkia Xanistebanetan ateratakoa da, Iruñeko Ortzadar taldearekin abuztuaren 5eko gauean izan zen erromerian ateratakoa. Bertan ikusten denez Doneztebe enparantzako zati handia hartu zuen Ortzadarreko Mikel Lasarte dantza-maisuaren gidaritzapean eratu zen korroak.

Adin ezberdinetakoa partaideek osatu zuten korroa, gizon eta andre, neska eta mutikoek. Dantza-maisuak ematen zituen dantzaren hasierako zenbait ohar, dantza ezagutzen ez zuena arrastoz jartzeko. Behin banda jotzen hasitakoan bakoitzak zekiena edo ulertu zuena egiteko unea iristen zen. Txikienek argi zuten: helduei, zaharragoei begiratu eta

haiek egiten zutena errepikatzen saiatu. Baina eta helduen artean zer? Ba, laburbilduz, biribilean gutxiago zekienak gehiago zekienari begira egiten zuen aurrera edo atzera, ezkerredera edo eskuinera, edo gora edo behera. Garai batean egiten zen bezala eta ikasi nahi duenak geroago ere egin beharko duen bezala. Hori izan baita ikasteko eretako bat.

Gainera, erromerian helburua zein da? Seguru ez dagoela helburu bat bakarrik, baina gehien errepikatzen dena azpimarratu behar bagenu, hori ongi pasatzea dela esan beharko genuke. Gainera erromeria mota honetan parte hartzeak ibilbide, historia eta pentsamolde jakin batzuetako gizatalde bateko aisialdian parte hartzea esan nahi ote du? Globalizazio ez estandarizatu baten alde egitea ote da?

Seguru parte hartzen dugun gehienek Eroskin txokolatea aukeratzen baino denbora gutxiago pasatzen dugula erromerian parte hartu edo ez erabakitzen.

KONTZERTUAK SOINUENEAN

Udako kontzertua

2013ko abuztuaren 24an - 18:30tan

**Gurutzeko
frontoian**

ALKARKIDE TXARANGA



Alkarkide Txarangaren jatorria Pasai Antxoko Alkartasuna dantza taldean dago. Izan ere, Alkartasunako partaide ohiak biltzetik sortu zen Alkarkide Txaranga. Hasieran, Iparraldeko ikastolak biltzen dituen Seas-karen aldeko afariak girotzera soinujole bat eta atabalari bat joaten ziren. Denborak aurrera egin ahala, pixkanaka, soinulari gehiago batzen joan ziren gaur egungo txaranga osatu arte.

Txaranga honek bere ibilbidean zehar izen ezberdinak izan ditu. Eman zitzaion lehenengo izena *Lagunak* izena izan zen, baina ekitaldiak ugaritu ahala izena aldatzea egoki ikusi zen.

Partaideen jatorria kontuan hartuz oraingo izena jartzea erabaki zen.

Txaranga dantza talde bateko partaide izandakoek sortua izanik, errepertorioa Euskal Herria osatzen duten eskualdeetatik bildutako doinuek osatzen dute. Hala ere, tartean bestelako musika ere jotzen dute, beti ere festa giroko musika: Raimundo Sarriegik bere garaian konposatutako Kaldereroen Konpartsarako musika eta bazkari eta afariak alaitzeko deitzen dietenez beraien errepertorioan sartu dituzte horrelako ekintzetan kantatzen diren abesti herrikoiak ere.

EGITARAUA:

01. Xamurra
02. Mutil dantza
03. Lantz
04. Antxoriz
05. Ttun-ttun
06. Trintxerpe
07. Bartolo
08. Bralea
09. La bota
10. Urdiain
11. Pilindros (Tafallako jota)
12. Gaztelugatxe

Alkarkide Txarangaren ekitaldiak erromeriek eta euskal dantzekin edo euskararekin berarekin lotuta dauden ekintzekin bat eginda ageri dira.

Udako kontzertua SOINUENEA - Herri Musikaren Txokoa

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Gurutze auzoko frontoian izango da. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa (afaria): 18 euro.



kontzertu honen
laguntzaileak:

AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA

DE DYSTED SPILLEFOLK

Danimarka



De Dysted Spillefolk taldeak bere ibilbidea 1975ean, garai hartan Dysted-en, Naestved-etik 15 Km-ra, bizi zen, Finn Alfred Larsen maisu ospetsuarekin hasi zuen. Finn Alfred-ek Dysted-eko eskola zaharra hartua zuen eta bertan bizi zen. Herrian musikari afizionatu asko etxean eserita beraientzat jotzen ariko zirela pentsatu zuen. Horrela, taldean elkartuta soinutresnak joaz ongi pasatzeko gogoia zuten musikariak astean behin elkartzera gonbidatuz inguruko egunkarian iragarki bat jartzea erabaki zuen.

Bospasei pertsonarekin hasi zen, baina lehen gau haien ondoren orkestra garatzen eta handitzen joan da gaur egun 30 pertsonaz osatuta egonik.

Dysted-en zenbait urte eman ondoren, Finn Alfred Amager-era joan zen eta De Dysted Spillefolk bere musika lantzen jarraitzeko beste leku bat bilatu beharrean

izan zen. Laguntza handia izan zen Holmegaard-eko udalak egunean zehar eskolak emateko erabiltzen ziren eta gauetz hutsak egoten ziren Fensmark-eko Nissen Hus-eko gela batzuk uztea. Hura izan zen orkestraren egoitza zenbait urtetan.

Nissen Hus-en parean Fensmark-eko dantzaleku zaharra zegoen, antzinako balkoi eta terrazak izateaz gain auditorio zabala duen eraikuntza ikusgarria. Hau salgai jarri zenean Holmegaard-eko udalak erosi zuen. Udalaren asmoa antzinako bilera-lekua kultur egitarau zabala eskainiko zuen kultur etxe bilakatzea zen. Geroztik, De Dysted Spillefolk bestelako taldeekin batera (herri dantzak, antzerkia, eta abar lantzen dituzten taldeak) bertan da.

De Dysted Spillefolk soinutresna batekin datorren edonori ongietorria emateko prest dagoen orkestra irekia da.

EGITARAUA:

01. Her er spillemænd i staden
02. Bryllups polka
03. D-durs polska
04. Dejlig er sommernatten
05. Den gamle sekstur
06. Den lille Vendelbo
07. Dobbelt kvadrille, Sønderborg
08. En rundrejse
09. Ganglåt fra Appelbo
10. Godnat
11. Gårdebylåtan
12. Hans Christians cykel
13. Helges hopsa
14. Imellem Esbjerg og Fanø
15. Kaffepolka
16. La Bri
17. På livets vej
18. Rørhagen
19. Longsomma Gjarted - dance

(Suediako maskaradako dantza)

ALBOKARIEN TOPAKETA HERNANIN

Hernani Musika Eskola Publikoko Alboka taldeak urtero Euskal Herriko albokarien laguntzarekin antolatzen duen Albokarien Hemaniko Topaketak aurten 20. edizioa du. Urriaren 4an, ostirala, izango da lehen ekitaldia. Egun horretarako kontzertua antolatu dute eta Hernani Musika Eskola Publikoko Alboka taldeak berak joko du, garai, jatorri eta estilo ezberdinetako piezaz osatutako errepertorioa. Emanaldi hau Hemaniko Biteri Kultur Etxean arratsaldeko 19:30tan izango da.

Urriaren 5an, larunbata izanik, egitaraua zabalagoa izango da. Lehenengo ekitaldia Hernani Musika Eskola



Dultzaineroen topaketa 2013ko Xanistebanetan. SNN

HAUR KANTAK DISKO-LIBURU BERRIAN

Lehenengo uztailaren 29an Soinuenean musika grabaketa berezi bat izan zen. Besteak beste Oiartzungo lau neska-mutil dantzan eta kantari aritu ziren *Musique en Herbe* 1996an sortu zuenetik zuzentzen duen Chantal Grosléziat musikari eta pedagogoaren egiten ari den lan batetarako. Emakume honek makina bat urte daramatza adin txikikoen hezkuntza musikaren inguruan lanean, bai maila ezberdinetako eskoletan erakusten, bai irakasle ariko direnak trebatzen. Musikaren hezkuntza goiztiarraren inguruan egindako lanak Frantziara argitaratu eta ondoren beste hizkuntza batzuetara argitaratuak ditu. Adibide moduan aipa daitezke munduko alde ezberdinetako sehaska kantez osatutako lanekin Kokinos argitaletxeak argitaratutako "Canciones infantiles y nanas del Baobab" eta "Las más bellas nanas del mundo".

Euskal Kultur Erakundearen bitartez Soinuenearekin iazko abenduan jarri zen harremanetan eta Iparraldean hasi zuen Euskal Herriko haur kanten bilketa jarraitu du hegoaldean.

Publikoan goizeko 10:30etan egingo den ALBOKA. INGU-RU FOLKLORIKOTIK ESKOLARA liburuaen aurkezpena izango da. Honen ondoren, eguerdiko 12:00tan albokari taldeen kale-bueltak izango dira herriko alde zaharreko kale eta plazetan. Girotutakoan, 14:30tan bazkaria izango dute Santa Barbara elkartearen topaketan parte hartzen dutenek, gainontzekoek 20 euroren trukean izango dute bazkari horretara joateko aukera.

Bapo bazkaldu eta irtzi trukaketen ondoren, arratsaldeko 18:00tan ALBOKALDIA izango da Euskal Herriko bazter ezberdinetatik etorritako albokariekin Ezkiaga pasealekuan.

HERRI MUSIKA IKASTEKO AUKERA

Xanistebanetan Oiartzungo Herri Musika Eskolako dultzaineroak Donostialdeko beste herrietakoekin batera kaleak alaitzen ibili ziren hainbat egunetan. Herriko erraldioen paseoa laguntzen egunen batean eta bukaerako penak uxatzen festen azken eguneko arratsaldean. Geroztik zenbait egun pasa dira eta abuztua bukatzean dagoenean ikasturte berria ate joka sumatzen da.

Ikasturte berrian, dultzaina jotzen ikasteko aukera izango da, jakina, baina aurreko urteetan bezala, herri perkusioa gustukoagoa duenak txaramelak, panderoa, kanabera eta danborra jotzen ikasteko aukera izango du. Horietaz gain, txalaparta, alboka, xirolarrua eta biolina ikasteko aukera ere badago Oiartzungo Herri Musika Eskolan. Aipatutakoez gain, txistu eta danbolina jotzen ere ikas daiteke. Partiturak deszifratu eta irakurri nahi dituenak berriz, solfeoa ikasteko aukera ere izango du.



Oiartzungo neska-mutilak grabaketan. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1107

Antolatutako taldeak: 38

Bisitari kopurua abuztua arte: 37915

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 16777

SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.org

www.soinuenea.org

